

opusdei.org

Aralarko Aingerua Unibertsitatean

Aingeruaren lehen bisita

2017 Mai 9

Joan den 26an, asteazkena, izan genuen Aralarko Aingeruaren lehen bisita campusera. Mikel Gartziandiak, Aralarko San Migel Santutegiko kapilauak, gogoratu zuen bezala, bisita hau guztiz egokia da Unibertsitateak Nafarroako ohitura honekin gordetzen duen bateragarritasunagatik, gure armarriak Migel Goiaingeruaren irudia agertzen baitu.

“Amigos” eraikina bisitatu zuen eta hango kaperan zeremonia xume bat egin zen santutegiko kapilauak zuzenduta.

Ekitaldi horretan, Unibertsitatea bedeinkatu zuen eta maitasunean eta egian ardaztutako hitz batzuk zuzendu zituen: “Mikel Doneak, Elizaren babesleak, gure Unibertsitatearen patroiak, hala nola gure Erreinuaren hainbat menderen patroiak, lagundu gaitzala ere borroka honetan, fedearen, maitasunaren eta egiaren borrokan, sinesgarri ager gaitezen”. Hauexek dira, Santutegiko kapilauaren esanez, iraun behar duten eta garatu behar diren baloreak Unibertsitateak egunez egun egiten duen lanean ikasleen hezkuntzan hala nola ikerketari egiten dizkion etengabeko ekarpenetan.

Goiaingeruaren irudiaren zentzua Nafarroarentzat

Mikel Gartziaandia Jaunak gogorarazi
zuen ere San Migel Aingeruaren
irudia zentzuz beterik dagoela:

“Islamen etorrerak gurutzearen
protagonismoa sorrarazi zuen
kristau erreinuetan,
erresitentziaren eta biziraupenaren
sinbolo bihurtuz, eta asturiarrak
Errekonkistan Aingeruen
Gurutzearekin borrokatu zuten
bezala, Nafarroan San Migelen
gurutzearekin borrokatzen zen.
Jatorrian, orain dela mila urte, irudi
honi San Migelen Gurutzea deitzen
zitzaion. XVII. mendean, Nafarroa
eta Aragoiko Ramiro infanteak,
Asturiaseko printzeekin batera,
ekarri zuten Oihal Santua Oviedora,
eta Aralarrera Lignum Crucisen
(Jesusen gurutzea) zatitxo batzuk.
XVIII. mendean irudia berritu zuten,
lapurretaren baten ondorioz
hondatuta baitzegoen, eta orduan
txertatu zituzten San Migelen irudi

horretan Lignum Crucisen zatitxoak”
esan zuen D. Migelek.

“Aurten irudiaren zaharberritzea
egiten ari gara eta bide batez
analitiko sakonak egingo dira Aditu
batek esan duenez, gurutzearen gaia
zaharra da , bi mila urtekoa, eta
ibilbide historikoa du. Fedea
historiaren nabaritasunetan
oinarritzen ez bada ere, gauza ederra
da zientziak tradizio osoa
baieztatzen duenean“ erantsi zuen.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/aralarko-
aingerua-unibertsitatean/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/aralarko-aingerua-unibertsitatean/) (2025 Abu 11)